

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2018ko ordainagiriak kobratzea

Nik, Aitor Abecia Jimenez de Aberasturik, Zanbranako Udaleko alkate-lehendakariak, hau

Jakinarazten dut 2018ko abenduaren 1etik 31ra bitartean borondatezko epean ordaindu ahal izango direla jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2018ko ordainagiriak:

1. Ordaintzeko epea.

Borondatezko epea: 2018ko abenduaren 1etik abenduaren 31ra.

Betearazte aldia: 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

2. Ordaintzeko tokia eta modua.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko ekitalditik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Hala ez bada, udalari jakinarazi beharko zaizkio kontu korronte berriari buruzko datuak.

Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez daukatenek udal bulegoetan baino ezin izango dute ordaindu, borondatezko aldiaren edo, bestela, banku transferentzia bidez.

3. Gomendioak.

Banku helbideratzeetako altak eta bajak, eta gerora jakinarazpenak egiteko helbide aldaketak Zanbranako Udalari jakinarazi behar zaizkio.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Zanbrana, 2018ko azaroaren 21a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI